

## 40 GALDERA ETA ERANTZUN COVID-19az ETA KULTUR ONDAREAZ

### AURKIBIDEA:

1. Norentzat da gida hau?
2. Zer informazio ematen du?
3. Zergatik da garrantzitsua aholku hauei kasu egitea?
4. Nork ezarri behar ditu neurriak?
5. Norengana jo zalantzarik badugu?
6. Zer neurri dira onenak inor kutsatu ez dadin?
7. Zein da koronabirus berriaren ahulgunea?
8. Zenbateraino transmititzen ahal da birusa ondarearen bitartez?
9. Zer baldintzak dute eragina birus aktiboek gainazaletan duten biziraupenean?
10. Zenbat irauten du birusak gainazaletan?
11. Zer gainazal kutsatu daitezke?
12. Zer arrisku dakartza desinfektatzaileen erabilerak?
13. Zergatik dira kaltegarriak, kultur ondasunentzat, disoluzio desinfektatzaileak?
14. Zer kalte eragin ditzake alkoholak?
15. Zer kalte eragiten dituzte lixibak eta kloroa duten konposatuek?
16. Zer kalte eragiten dituzte amoniakoak eta amonio kuaternarioaren konposatuek?
17. Zer kalte eragiten ditu ozonoak?
18. Zer kalte eragiten ditu argi ultramorearekiko esposizioak?
19. Zer kalte eragiten dituzte presio sistemek, nebulizagailuek, zipriztingailu elektrostatiakoek, lurruneztagailuek...?
20. Erabil daitezke produktu komertzialak desinfekzioarako?
21. Kaltegabea da ura?
22. Zein da sistemarik onena, ondareari kalterik ez egiteko?
23. Nola eman gomendio hauen berri bisitari eta erabiltzaileei?
24. Berriz ireki aurretik, noiz eta nola desinfektatu eremuak?
25. Nolabait desinfektatu daitezke bisitarien oinetakoak, era egokian, sartu aurretik?
26. Bisiten ondoan, noiz eta nola desinfektatu eremuak?
27. Noiz eta nola desinfektatu zoruak?
28. Noiz eta nola desinfektatu ondare-interesik ez duten altzariak eta ekipamendua?
29. Noiz eta nola desinfektatu instalazio sanitarioak eta igogailuak?
30. Noiz eta nola desinfektatu ondare-elementuak?
31. Nola zaindu ondarea eliza batean?
32. Noiz eta nola desinfektatu aztarnategi arkeologikoak eta aire zabaleko beste eremu batzuk?
33. Posible da apainketako iturriak eta eskulturak tratatzea, gainerako hiri-materialak bezala?
34. Nola lortu inork ez ukitzea elementu oso handi edo oso astunak?
35. Noiz eta nola antolatu berrogeialdirako eremu bat, ondasun susmagarriak edukitzeko?
36. Eta ez badago erabilgarri berrogeialdirako eremurik?
37. Noiz eta nola maneiatu ondasun eramangarriak, segurtasunez?
38. Zer egin baldin kutsatutako pertsona bat lanean aritu bada kultur ondasunak dauden eremuetan?
39. Ba al dago "coronavirus free" aukerarik?
40. Informazio gehiago behar duzu?

### 1. NORENTZAT DA GIDA HAU?

Kultur erakundeen eta ondare-guneen arduradunentzat, horiek mantentzeaz eta garbitzeaz arduratzen diren enpresa eta pertsonentzat, eta ondasun kulturalen jabe direnentzat eta ondarearen kontserbazioak arduratzen dituenentzat.

### 2. ZER INFORMAZIO EMATEN DU?

Informazio argia eta zehatza ematen da desinfektatzaileek ondarean duten eraginari buruz, eta gomendio errazak ere bai, jakiteko nola jokatu behar den, ez dakion kalte konponezinik eragin gure kultur ondareari. Gainera, gehiago jakin nahi duenak horretarako aukera du, zenbait esteka bildu baititugu arauak eta erakunde ofizialek emandako gomendioak kontsultatzeko, baita Ondare Historikoaren Zerbitzuan harremanetan jartzeko bidea ere, zalantzak argitzeko.

### 3. ZERGATIK DA GARRANTZITSUA AHOLKU HAUEI KASU EGITEA?

Erabiltzaileen, bisitarien eta langileen osasuna babesteko, baina, aldi berean, arriskurik edo albo kalterik ez eragiteko tokiari eta bertako ondasunei, horien kontserbazioa bermatze aldera. Zeregin hau guri dagokigu, inoiz baino gehiago, eta norberaren erantzukizuna ezinbestekoa da.

### 4. NORK EZARRI BEHAR DITU NEURRIAK?

Eraikinen, ondare-elementuen edo bildumen arduradunek aplikatu behar dituzte gida honetan biltzen diren gomendioak, eta horiek martxan jarri. Gainera, arduradun horiek eta beren lantaldeak ezin hobeki ezagutzen dituzte toki horietako dinamikak, mantentze-lanei, lan egiteko moduari eta ohiko erabilerari dagokienez; hortaz, gida hau moldatzen ahal dute, ahalik eta hobekien egokitzeko egoera zehatz bakoitzera.

### 5. NORENGANA JO ZALANTZARIK BADUGU?

Kultur ondarearen babesari eta kontserbazioari buruzko zalantzak eta kontsulta teknikoak egiteko, Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikariengana jo behar da, telefonoz edo posta elektronikoz:

848 426 090 / 676 987200

[patrimoniohistorico@navarra.es](mailto:patrimoniohistorico@navarra.es)

### 6. ZER NEURRI DIRA ONENAK INOR KUTSATU EZ DADIN?

Birusari eusteko, neurrikerik eraginkorrenak dira urruntze fisikoa, eskuak maiz garbitzea, maskara erabiltzea, eta berrogeialdia, baldin eta kutsatu bagara edo kutsaturiko pertsona batekin kontaktu estua izan badugu. Halaber, neurri hauek garrantzitsuak dira gure ondarea zaintzeko, eta pertsonen segurtasuna bermatzen dute, kultur ondasunak kutsatzea saihestearen bidez.

### 7. ZEIN DA KORONABIRUS BERRIAREN AHULGUNEA?

COVID-19ak, beste koronabirus batzuek bezala, kanpo mintz bat du, lipoproteinaz osatua, birusaren barnealdea babesteko. Mintz hori desegiten dute, besteak beste, xaboiak, disolbatzaile organikoek (alkohola, adibidez) eta desinfektatzaileek (lixiba, adibidez). Orobat degradatzen da baldintza lehorretan eta airearen eta eguzkiaren eraginpean. Mintz babesle hori desegitean, birusa inaktibo gelditzen da, eta kutsatzeko ahalmena galtzen du.

### 8. ZENBATERAINO TRANSMITITZEN AHAL DA BIRUSA ONDAREAREN BITARTEZ?

Ondareko objektuak gutxi maneiitzen dira normalean, eta birusa desaktibatzen da, berez, giza gorputzetik kanpo dagoenean; horregatik, ondarearen bitartez transmititzeko arriskua oso txikia da. Hala ere, oso garrantzitsua da azpimarratzea "ez dela ukitu behar".

### 9. ZER BALDINTZAK DUTE ERAGINA BIRUS AKTIBOEN GAINAZALETAN DUTEN BIZIRAUPENEAN?

Gainazal garbiak ingurune zaila dira birusek bizirauteko, baina zikin daudenetan errazago bizirautean dute, mantenugaien substratu bat baitago. Azken horiek transmisio foku bat dira eskuekin ukituz gero (eskularruak jantzita bada ere) eta horiek ahoko, sudurreko edo begietako mukosetara eramanek gero. Gainazalaren ehundurak ere eragina du kutsatzeko orduan. Kutsatzeak lotura du hartutako karga birikoarekin; hortaz, errazagoa da karga biriko handiagoa transferitzea gainazal leunetatik zimurtsuetatik baino, baina zailagoa da azken horiek guztiz desinfektatzea.

#### 10. ZENBAT IRAUTEN DU BIRUSAK GAINAZALETAN?

Koronabirus barietate honek 9 egunez ere iraun dezake gainazal batzuetan. Ikerketa zientifiko asko daude horri buruz, eta gero eta datu gehiago ditugu eskura. Horietan guztietan, kontuan hartzen dira giro tenperatura eta hezetasun erlatiboa, erabakigarriak baitira biak ala biak. Ikerketa batzuetan, gainera, ingurunearen pHa ere kontuan hartzen da: ingurune neutroetan, biziraupena handitzen da, eta ingurune azido eta basikoetan, berriz, txikitzen da. Orokorrean:

- 21 eta 23 °C bitartean, %40ko hezetasun erlatiboarekin:

Kobreak: 4 ordu

Kartoian: 24

Altzairu herdoilgaitzean: 48

Plastikoan: 72 ordu

- 22 °C-tan, %60ko hezetasun erlatiboarekin:

Paperean (inprimatzekoan, edo paperezko zapietan): 3 ordu

Zur, arropa edo beiran: 1-2 egun

Altzairu herdoilgaitzean, plastikoen, bankuko billeteetan eta maskara kirurgikoetan: 4 egun baino gehiago

- Airean:

10 mikra baino gehiagoko partikulak kutsaturiko pertsonarengandik 1 edo 2 metrora arte jalkitzen dira.

5 mikra baino gutxiagoko partikulak airean egon daitezke 3 orduz, edo luzaroago.

Aire girotuak kutsatzeko foku izan daitezke; horregatik, behar bezala berrikusi eta mantendu behar dira.

#### 11. ZER GAINAZAL KUTSATU DAITEZKE?

Kutsaturik egon daitezke eskuz ukitzeko moduan dauden gainazalak eta hitz edo eztluz egitean mikropartikulak jaso ditzaketanak. Zaila bada elementu bat eskuz ukitzea eta mikropartikulak hara ailegatzea, zaila izanen da kutsaturik egotea edo norbaitek hura ukitu eta kutsatzea. Ez du zentzurik desinfektatzailea erabiltzea 2 metroko altueratik goiti.

#### 12. ZER ARRISKU DAKARTZA DESINFEKTATZAILEEN ERABILERA?

Desinfektatzeko erabiltzen diren produktu eta teknika gehienak garatu dira instalazio sanitarioetan, industrialetan eta ibilgailuetan aplikatzeko, eta ez gure ondareko material sentikorrek garbitzeko. Azken horientzat kaltegarriak dira, eta epe ertain eta luzean galerak eragin ditzakete. Ongi irakurri behar dira erabiltzen diren produktuen segurtasun fitxak, eta era egokian gorde eta maneiatu behar dira; izan ere, horietako batzuk aplikatzeko, ezinbestekoa da langileek prestakuntza egokia izatea. Produktu hauek kalte konponezinak eragiten dituzte ondarean, ingurumenean eta pertsonen osasunean, eta Osasun Ministerioak zenbait muga ezarri ditu horiek erabiltzeko, ezagutu beharrekoak.

#### 13. ZERGATIK DIRA KALTEGARRIAK, KULTUR ONDASUNENTZAT, DISOLUZIO DESINFEKTATZAILEAK?

Denak dira korrosiboak eta oxidatzaile sendoak gure kultur ondasunen materialentzat, izan eraikinak, zubiak, iturri apaingarriak, hiri eskulturak, hileta elementuak, aztarna arkeologikoak, antzinako altzariak, tapizak eta alfonbrak, erretaulak, margolanak, eskulturak, antzinako liburu eta agiriak, argazkiak... Epe ertain eta luzean orbanak sor ditzakete, gatzak kristalizatu daitezke eta ustez erresistenteenak diren materialak desegin (harria, esaterako), edo pigmentuekin, aglutinatzaileekin eta metalekin erreakzionatu. Horren ondorioz, materiala azkarrago zahartzen da, kontserbatzeko arazoak sortzen dira,

eta baliabide asko bideratu behar dira horiek konpontzera (beharbada, ditugunak baino gehiago). Ondarearen gaineko kalteak saihestu daitezkeenez, beste behar batzuei erantzuteko erabil daitezke baliabide horiek.

#### 14. ZER KALTE ERAGIN DITZAKE ALKOHOLAK?

Disolbatzaile azkarra da, eta margoak, tintak eta bernizak erasan ditzake. Hortaz, kalte larriak eragin ditzake erretaletan, margolanetan, eskulturetako polikromietan, antzinako liburu eta agiritako tintetan eta beste askotan. Elementu modernoetan erabili daiteke, hala nola beiran, ateetako eskutokietan, barandetan eta abar; horiek maiz ukitzen direnez, beharrezkoa da desinfekzioa ere maiz egitea.

#### 15. ZER KALTE ERAGITEN DITUZTE LIXIBAK ETA KLOROA DUTEN KONPOSATUEK?

Sodio hipokloritoari esan ohi zaio lixiba. Horretaz gain, badira beste formulazio batzuk merkatuan, konposatu klorodunak dituztenak. Horiek guztiak oxidatzaile sendoak dira (horregatik dira zuritzaileak), eta orbanak eta korrosioa eragiten dituzte. Horrela, ukitzen dituzten materialetan kalte berreskuraezinak egiten dituzte. Gainera, gogoan hartu behar da kontzentrazio altuan erabiliz gero lurrunak askatzen direla, eta horiek kaltegarriak direla pertsonentzat eta ondarearentzat.

#### 16. ZER KALTE ERAGITEN DITUZTE AMONIAKOAK ETA AMONIO KUATERNARIOAREN KONPOSATUEK?

Amonio kuarternarioaren formulazioak oso ohikoak dira birusen kontrako desinfektatzaileetan. Horien eraginkortasuna hobetzeko, detergenteak, kelatzaileak eta pH zuzentzaileak (azido eta base sendoak) ere sartzen dira formulatan, ia neutroak diren formulazioak lortzeko; hala ere, guztiak ez dira neutroak, eta azido edo basikoek ondorio konponezinak izan ditzakete ondare-materialetan. Horregatik, ez litzateke horrelakorik erabili behar material horien inguruan. Gainera, arriskua dago hondakinak gelditzeko, eta urez garbitu behar dira, kontu handiz, etanola bezalako disoluzio sinpleen kasuan baino gehiago.

#### 17. ZER KALTE ERAGITEN DITU OZONOAK?

Oxidatzaile sendoa da, erradikal askeak sortzen ditu, eta horiek materia organikoari erasaten diote, erreakzio suntsitzaileak gertatzen dira eta. Kultur ondarearen arloko nazioarteko erakunde batek ere ez du onartu ozonoa erabiltzea. Eraginkorra izateko, kontzentrazio altuak behar dira, eta horiek kaltegarriak dira pertsonen osasunerako.

#### 18. ZER KALTE ERAGITEN DITU ARGI ULTRAMOREAREKIKO ESPOSIZIOAK?

Denok dakigu zein garrantzitsua den material sentikorrek eguzkipean ez jartzea, erradiazio ultramorea (UV) baita eguzki argiaren osagai arriskutsuenetako bat. Argi ultramorea eragin birizida izateko, intentsitate altuan aplikatu behar da (260 nm, 90 mW/cm<sup>2</sup>-tan), eta denbora luzez (ordubete baino gehiago). Hori oso arriskutsua da kultur ondasunentzat eta horien erabiltzaileentzat.

#### 19. ZER KALTE ERAGITEN DITUZTE PRESIO SISTEMEK, NEBULIZAGAILUEK, ZIPRIZTINGAILU ELEKTROSTATIKOEK, LURRUNEZTAGAILUEK...?

Sistema hauek diseinatu dira produktu desinfektatzaileak eremu zabaletan aplikatzeko. Dagoeneko aipatu ditugun produktuak aplikatzeko erabiltzen dira; hortaz, kultur ondasunen gainean dituzten ondorioak berak dira, baina, irismen handiagoa dutenez azalera handiagoetan zabaltzen dira kalteak. Presio-zurrusta erabiltzen bada desinfektatzaileak eta, are, ur hutsa aplikatzeko, portadak, harrizko eskulturak eta eraikinen oinaldeak are gehiago kaltetzen dituzte: gune ahulenak eror daitezke, eta barneko gatzak mugiarazten dira, azkenean harria edo adreilua txikituko dutenak. Lurruneztatzeak berekin dakar gainazalak 70 °C-tara edo gehiagotara jartzea, eta horrek sekulako kaltea eragiten du artelanetan.

## 20. ERABIL DAITEZKE PRODUKTU KOMERTZIALAK DESINFEKZIORAKO?

Bai, baina ezinbestekoa da kasu egitea fitxa teknikoetako jarraibideei eta nola erabili azaltzen duten etiketei. Kontuan hartu behar da gehigarriak (koloragarriak, parfumeak, agente kelatzaileak, apar eragileak, etab.) arazotsuak izan daitezkeela. Garbitu eta desinfektatu ondoan, ez litzateke hondakinik gelditu behar ondasunekin kontaktu zuzena izanen duten gainazaletan. Hondakinik ez gelditzeko eta gehigarrien eragin kaltegarriak gutxitzeko, disoluzio sinpleak erabiltzea da irtenbiderik onena: etxeko lixiba diluitua (kontzentrazio altuegia duten disoluzioek sodio kloruroaren hondakin arriskutsuak uzten dituzte), edo alkoholaren eta uraren nahasketak, alkohola %70 baino proportzio handiagoan (v/v). Horrez gain, ziurtatu behar da produktuak bateragarriak direla gainazalekin, eta kontaktu denborari eta urez garbitzeari buruzko jarraibideei kasu egin behar zaie. Horrez gain, garbiketa lanetan sortutako hondakinak era egokian tratatu behar dira: norbera babesteko ekipamenduak (NBE), botatzeko diren paperak eta trapuak...

## 21. KALTEGABEA DA URA?

Ez, ura disolbatzaile azkarra da zenbait materialetan, eta agudo suntsitzen ahal ditu tintak eta koloragarriak, eta apaingarri asko desegiten ahal ditu, hala nola igeltsuan egindakoak, urre-xaflekin egindakoak, tenple-pinturak, etab. Horregatik, nahiz eta azpimarratu dugun ura eta xaboi neutroa erabiltzea dela sistemarik egokiena eremu historikoak garbitzeko, edo, bestela, alkohola (kontuan hartu alkoholaren formulazioan zati handi bat ura dela), bi disoluzio horiek ere oso arriskutsuak dira ondareko hainbat eta hainbat elementutan. Horregatik, lehen gomendioa da ez aplikatzea garbiketa teknikarik ondare historikoan. Jarduketa hauek ondorio berreskuraezinak dituzte baldin behar den prestakuntza eduki gabe egiten badira; hortaz, zaharberritzaile batek egin behar du ondare-elementuen garbiketa, ez beste inork.

## 22. ZEIN DA SISTEMARIK ONENA, ONDAREARI KALTERIK EZ EGITEKO?

Horretarako, "ikusi bai baina ukitu ez" esaldia da kultur ondarea desinfektatzeko modurik onena. Gainera, jokabide horren bidez saihesten da pertsonak elkar kutsatzea. Hala ere, norbaitek gainazal bat ukitu izateko arriskua dago, edo ez tul edo doministiku eginez kutsatzekoa. Birusa denbora mugatu batean mantentzen da aktibo, beraz, ondarea ez kaltetzeko eta desinfektatu beharrik ez izateko, neurririk onena da berrogeialdian jartzea; hots, bi astean inork ez ukitzea.

## 23. NOLA EMAN GOMENDIO HAUEN BERRI BISITARI ETA ERABILTZAILEEI?

Oso garrantzitsua da erabiltzaileei neurri hauen berri ematea, guztion onerako dira eta. Bisitariari eskatu behar zaie laguntza emateko eta arduratsuak izateko, sartzen diren unean, eta gogorarazi behar zaie beharrezkotzat jotzen den toki guztietan. Oroitarazi zein garrantzitsua den behar den distantzia uztea pertsonen artean, bai eta gauzen artean ere. Kontserbazio prebentiboa egiteko, ezin dira ukitu interes artistikoa edo historikoa duten objektuak. Arau hori inoiz baino gehiago bete behar da orain, segurtasuna bermatzeko eta gainazalak ez kutsatzeko. Beharrezkoa da erakundeko arduradun bat edo laguntzaile bat hor egotea bisita bitartean.

## 24. BERRIZ IREKI AURRETIK, NOIZ ETA NOLA DESINFEKTATU EREMUAK?

Itxialdian eraikina itxita egon bada, segurua da, eta ez da beharrezkoa ezohiko neurriak hartzea garbitzeko eta desinfektatzeko. Zehatz-mehatz planifikatu behar da nola garbituko den eraikina bisitariantzat eta langileentzat ireki ondoan.

## 25. NOLABAIT DESINFEKTATU DAITEZKE BISITARIEN OINETAKOAK, ERA EGOKIAN, SARTU AURRETIK?

Sistema errazen bitartez, bisitarien segurtasuna eta konfiantza hobetu daiteke. Alfonbra bat jar daiteke, disoluzio desinfektatzaile batez zipriztindua (lixiba tapoi bat ur litro bakoitzeko). Eraginkorra izateko, bisitariak gutxienez 30 segundoz egon behar du haren gainean; adibidez, bisitarako gomendioak dituen kartel bat irakurtzen dituen bitartean. Desinfektatzailea duen alfonbraren ondoren beste bat egonen da, lehorra,

desinfektatzailearen soberakinak xurgatzeko. Horrela, bisitaria ez da irristatuko, eta lixibak ez du zoladura kaltetuko. Alfonbra aldiaren behin zipriztindu behar da desinfektatzailearekin, gutxienez egunean bitan.

#### 26. BISITEN ONDOAN, NOIZ ETA NOLA DESINFEKTATU EREMUAK?

Distantzia fisikoa gordetzea eta ondarea ez ukitzea buruzko gomendioei jarraituz gero, erraz garbitu eta desinfektatu daitezke zoruak, jarlekuak, ateen eskutokiak eta etengailuak: horiek dira kutsaturik egon daitezkeen gainazal bakarrak. Komeni da norbera babesteko ekipamendua janztea eta era egokian erabiltzea, txikitze aldera kutsaturiko gainazalak nahiz disoluzio desinfektatzaileak ukitzeko dagoen arriskua. Zer-nolako den gainazala, horretara egokituko dira erabiltzen diren desinfektatzaileak eta aplikazio metodoak. Inola ere ez da gomendatzen desinfekzio masiboak egiteko sistemak erabiltzea. Desinfektatzaileak eraginkorrak dira gainazalaren zikinkeria kendu ondoren; hots, komeni da desinfektatu aurretik garbitzea. Aldez aurretik probak egin behar dira, ziurtatzeko ez direla zipriztintzen inguruko objektuak, gehiegizko zipriztintze baten edo gaizki bideratzearen ondorioz.

#### 27. NOIZ ETA NOLA DESINFEKTATU ZORUAK?

Kasu egin behar zaie beti osasun arloko agintaritzak eman dituen babes-gomendioei, baita Ondare Historikoaren Zerbitzuak emandakoei ere. Zoru modernoak garbitzeko, ura eta xaboa erabil daitezke, eta, are, ura eta lixiba ere bai, baina kontzentrazioak %1 baino txikiagoa izan behar du. Kontzentrazioa handitzean ez da eraginkortasuna handitzen, eta bai, ordea, bigarren mailako ondorio kaltegarriak. Kontu handiz ibili behar da, putzurik egin gabe, eta paretak eta altzariak ukitu gabe. Lixibak hondatu egiten ditu antzinako zoladurak edota zurezkoak. Horietan, ura eta xaboi neutroa erabili behar da, minutu batez utzi, eta ondoren urez garbitu. Kontu handiz ibili behar da, putzurik egin gabe, eta paretak eta altzariak ukitu gabe.

#### 28. NOIZ ETA NOLA DESINFEKTATU ONDARE-INTERESIK EZ DUTEN ALTZARIAK ETA EKIPAMENDUA?

Barandak, atek, heldulekuak eta eskutokiak, jarlekuak eta aulkiak, eskudelak, beira arasak eta altzari modernoak... Horiek guztiak desinfektatzeko, erabili eta botatzeko paper edo zapiak erabil daitezke, xaboi neutroa eta ura duen zipriztingailu batekin batera. Gogoan hartu behar da beti zapien zipriztindu behar dela, eta ez garbitu beharreko gainazalarekin, eta kontu handiz ibili beharko dugu, inguruko elementu baliotsuak ez zipriztintzeko. Metal industrialetan eta beira modernoan, alkohola erabil daitezke, baina zurezko altzariak eta atek hondatzen dira, baldin alkohol edo lixibaz maiz garbitzen badira.

#### 29. NOIZ ETA NOLA DESINFEKTATU INSTALAZIO SANITARIOAK ETA IGOGAILUAK?

Espazio hauek desinfektatzeko, osasun arloko agintaritzaren gomendioei jarraitu behar zaie. Osasun Ministerioak gida bat dauka, onartuta dauden produktu birizidei buruzkoa.

#### 30. NOIZ ETA NOLA DESINFEKTATU ONDARE-ELEMENTUAK?

INOLA ERE EZ SAIATU DESINFEKTATZEN ARTELAN BAT, ELEMENTU HISTORIKO BAT EDO ELEMENTU DOKUMENTAL BAT; izan ere, desinfektatzeko erabili ohi diren produktuek ondorio larriak sortzen dituzte kultur ondarean, eta betirako kaltetzen ahal dute. Deitu lehenbailehen Ondare Historikoaren Zerbitzuaren telefonora, edo igorri posta elektronikoa bat:

848 426 090 / 676 987200

[patrimoniohistorico@navarra.es](mailto:patrimoniohistorico@navarra.es)

#### 31. NOLA ZAINDU ONDAREA ELIZA BATEAN?

Liturgiako elementu batzuek birusa transmititzeko arriskua izan dezakete, eta, hori ez gertatzeko, Gotzain-konferentziak zenbait gomendio eman ditu. Garrantzitsua da erabilera publikoko elementuak kentzea, birusa transmititzeko arriskua areagotzen dute-eta: otoiiz

eta kantu liburuak, estanpak, dominak, erlikia ontziak, informazio orriak, atabakak... Debozio handia sortzen duten ondasunak jendeak ez ukitzeko moduan jarri behar dira, baina ikusteko moduan utz daitezke. Eraikina haizeberritu behar da aldian behin.

### 32. NOIZ ETA NOLA DESINFECTATU AZTARNATEGI ARKEOLOGIKOAK ETA AIRE ZABALEKO BESTE EREMU BATZUK?

Ireki aurretik, ebaluatu behar da zer gaitasun dagoen ezarri ahal izateko Osasun Ministerioak eta Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutuak (ICTE) emandako gomendioak eta Museo eta ondare-lekuetarako jarraibide eta gomendioak. Toki hauek konplexuak direnez, eta jakinik toki bakoitza bakarra dela eta berariazko ezaugarriak dituela, gomendatzen dizugu gure teknikariekin harremanetan jartzea, kasua xeheki aztertu eta aholkuak eman ditzaten. Ondasun kulturalak prebentzioz kontserbatzeko oinarrizko gomendio bat da ez uztea edonori horiek ukitzen. Orain, inoiz baino gehiago, gomendio hori arautzat hartu behar dugu. Hori da modurik onena aldi berean babesteko bisitaria eta gure kultur ondarea. Deitu lehenbailehen Ondare Historikoaren Zerbitzuaren telefonora, edo igorri posta elektronikoko bat:

848 426 090 / 676 987200

[patrimoniohistorico@navarra.es](mailto:patrimoniohistorico@navarra.es)

### 33. POSIBLE DA APAINKETAKO ITURRIAK ETA ESKULTURAK TRATATZEA, GAINERAKO HIRI-MATERIALAK BEZALA?

EZ, inola ere. Ez dira hiri altzariak: asko eta asko kultur ondare izateagatik babesturik daude. Elementu historikoak dira, oroitzapenezkoak, edo artisten artelanak, babestu beharrekoak. Harrian zizelkaturik egon ohi dira, edo aleazio metalikoz eginak dira, askotan artistak berak aplikaturiko patinaz bukatuak, eta desinfektatzaileekiko oso kalteberak dira, zeinek aldaketa berreskuraezinak eragin baititzakete. Ez dira langarretatu behar, ezta zurrustaz garbitu edo lixibazko disoluzioekin edo disoluzio kloratuekin fumigatu ere. Ez da erabili behar ere lurrun beroa edo amoniakoaren eratorriak dituzten formulazioak, azido azetikoak edo hidrogeno peroxidoa.

### 34. NOLA LORTU INORK EZ UKITZEA ELEMENTU OSO HANDI EDO OSO ASTUNAK?

Jendearen irismenetik kanpo utz daitezke, hesi fisiko bat jarrita: lerro edo zinta bat, itxitura bat edo jendea ez hurbiltzeko beste elementuren bat. Kontuan hartu behar dira, bereziki, eraikinen oinaldeak eta portadak. Barnealdeetan ere elementu higigarriren bat jar daiteke hesi gisa, desinfektatzeko erraza dena baina pertsonak hurbiltzea saihesten duena.

### 35. NOIZ ETA NOLA ANTOLATU BERROGEIALDIRAKO EREMU BAT, ONDASUN SUSMAGARRIAK EDUKITZEKO?

Susmoa badugu elementuren bat kutsaturik dagoela, berrogeialdian jartzeko aukera baloratu behar da desinfektatzeko erabakia hartu aurretik; era horretan, birusak berez inaktibatzen dira, denborarekin. Horretarako, elementu horren ingurua mugatzen ahal da, inork ez dezan ukitu, edo sarrera mugatuko toki batera eramán. Azken kasu horretan, eremu seguru bat gaitu behar da, itxia eta behar bezala seinaleztatua. Objektua kontrolpean izateko, etiketa bat prestatu behar da, eta soka batekin piezari lotu, inoiz ez itsatsi. Etiketa horretan idatziko da noiz sartu den eremu segurura. Horrez gain, erregistro batean jaso behar dira sarrerak eta irteerak, baita elementu bakoitzarekin kontaktua izan duten pertsonak ere.

### 36. ETA EZ BADAGO ERABILGARRI BERROGEIALDIRAKO EREMURIK?

Elementua isolatzeko, plastikozko poltsa garbi batean sar daiteke, eta gero itxi, konfinamenduaren datak adierazi, eta gogorarazi ezin dela bere tokira itzuli bi aste igaro arte. Erregistro bat izatea oso garrantzitsua da, ez ahazteko plastikozko bilgarria kentzea, hori posible den unean; izan ere, baldintzak ez badira egokiak, kalteak sor daitezke.

### 37. NOIZ ETA NOLA MANEIATU ONDASUN ERAMANGARRIAK, SEGURTASUNEZ?

Printzipio hau hartu behar da kontuan: behar-beharrezkoa ez bada, hobe da objektuak lekuz ez aldatzea. Lekuz aldatzean, oro har, ingurune baldintzak ere aldatzen dira, eta, horrez gain, arriskuak sortzen dira objektuak lekualdatzean eta maneiatzean. Kultur ondasunak maneiatzeko, maskaraz babestu beharra dago, baina ez da gomendatzen eskuak edo eskularruak desinfektatzea gel hidroalkoholikoarekin, haren hondakinek kalteak sor ditzakete eta artelanetan, epe ertain eta luzean. Deus ukitu aurretik, aztertu behar da pieza nora eramane den eta zein ibilbide egingen den, zer pisu duen objektuak, zenbat pertsona beharko diren jarduketa hori egiteko arriskurik egon gabe, eta zer material osagarri erabiliko diren (gurpil pneumatikodun orgak, esaterako). Zalantzarik izanez gero, edo Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroko ondasun bat bada, harremanetan jarri Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikariekin, telefono edo posta elektronikoa hauetan:

848 426 090 / 676 987200

[patrimoniohistorico@navarra.es](mailto:patrimoniohistorico@navarra.es)

### 38. ZER EGIN BALDIN KUTSATUTAKO PERTSONA BAT LANEAN ARITU BADA KULTUR ONDASUNAK DAUDEN EREMUETAN?

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dira osasun publikoko gomendioak, kutsaturiko pertsona batekin kontaktu estua izan dutenek edo lantoki berean egon direnek jarraitu beharrekoak. Ondoren, beharrezkoa da jarraitzea garbiketarako eta desinfekziorako osasun publikoko agintaritzek emaniko gomendioei, eta, ondareko ondasunei kalte egiteko arriskua egon bada, Ondare Historikoaren Zerbitzuarekin harremanetan jarri. Jendea sartzeko debekua ezarri kutsaturiko pertsonak erabilitako eremuetan, eta horiek haizeberritu. 24 orduz itxaron, gutxienez, kutsaturiko pertsona egon den eremu guztiak garbitu eta desinfektatu aurretik, balizko mikropartikula guztiak jalki daitezten. 7 egun iragan badira kutsaturiko pertsona eraikin batean egon zenetik, ez da beharrezkoa eraikin hori garbitzea eta desinfektatzea ohi baino gehiago.

### 39. BA AL DAGO "CORONAVIRUS FREE" AUKERARIK?

Oso arriskutsua izan daiteke pentsatzea gauzaren bat guztiz desinfektaturik dagoela eta hala segituko duela denborak aurrera egin ahala. Guztizko desinfekzio iraunkorra posible da soilik eremu esteriletan, arrisku biologikoaren pean lan egiteko protokolo zorrotzak betetzen dituzten horietan. Egunerokoan bisitatzen ditugun eremuak ez dira horrelakoak; hortaz, beti dago arriskua, handiagoa edo txikiagoa, eta ikasi behar dugu harekin batera bizitzen eta nork bere erantzukizuna hartzen, ez dadin inor gehiago kutsatu gure jokabidearen ondorioz.

### 40. INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR DUZU?

Gehiago jakiteko, hemen bildu ditugu kontsultarako erreferentzia erabilgarri batzuk. Kontuan hartu behar da koronabirus berriari buruzko informazioa egunez egun zabaltzen dela; horregatik, garrantzitsua da kasu egitea erkidegoko, estatuko eta nazioarteko erakunde erreferenteen gomendioei. Ondare Historikoaren Zerbitzutik berresten dugu prest gaudela edozein zalantzarik erantzuteko, telefono eta helbide elektronikoa hauetan:

848 426 090 / 676 987200

[patrimoniohistorico@navarra.es](mailto:patrimoniohistorico@navarra.es)

## ERREFERENTZIAKO AGIRIAK

- OSASUN MINISTERIOA

<https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/home.htm>



- KULTURA MINISTERIOA

<http://www.culturaydeporte.gob.es/actualidad.html>

- ICOMOS erakundeak bere webgunean biltzen eta eguneratzen ditu erakunde ofizialek ematen dituzten gomendio garrantzitsuenetako gehienak:

<https://icomos.es/covid-19/comunicados-recomendaciones-y-medidas-propuestas/>

- GE-IIC, Kontserbazioaren Nazioarteko Institutuko Espainiako Taldea

<https://www.ge-iic.com/category/covid-19/>

- IPCE, Espainiako Kultur Ondarearen Institutua, Kultura Ministerioa

<https://ipce.culturaydeporte.gob.es/inicio.html>

Horrez gain, Ondare Historikoaren Zerbitzuak argitaraturiko gidan, zabal ematen dira ohiko kontserbazio-gomendioak.

<http://www.culturainavarra.es/imagenes/documentos/conservar-nuestro-patrimonio-62.pdf?t=20200420085635>

MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK  
ZURE ESANETARA GAUDE, ONDAREAREN ALDE LANEAN

2020ko maiatzean idatzi da gida hau.

## GARBITZEKO ETA DESINFECTATZEKO GOMENDIOAK KULTURA ONDAREKO TOKIAK

	<p>Edozein produktu kimiko kaltegarria izan daiteke kultura ondareko ondasunentzat.</p> <p>Ondare kultureko ondasunak ez dira desinfektatzen, ez dira kutsatu behar.</p>
	<p>Ez ukitu kultura ondareko espazioak eta ondasunak, ezta eskularruekin edo eskuak gel hidroalkoholikoarekin desinfektatuta ere. Zaintzarik onena EZ UKITZEA da.</p>
	<p>100 urtetik gorako material guztiak kultura-ondare izan daitezke, eta, beraz, ezin izanen dira desinfektatu merkataritza-produktuak aplikatuz.</p>
	<p>Sartzeko eta jasotzeko eremuak desinfektatu egin daitezke, baldin eta materialak modernoak badira: altzairu herdoilgaitza, kristala, zeramika, arbelak...</p>
	<p>Ahal den espazio eta materialetan, produktuak airera LAINOZTATU GABE aplikatu. Erabili eta botatzeko trapu edo paper batean lainoztatu BETI, eta desinfektatu beharreko gainazaleetatik pasatu</p>
	<p>Lurzoru modernoak urez eta lixibaz garbitu daitezke, lixiba-tapoi bat/litro bat ur proportzioan. Zurezko zoruak xaboi neutroz garbitu daitezke. Xukatu ondo garbigailua eta ez utzi putzurik hormak zipriztindu eta inguruneke hezetasuna altxatzeko.</p>
	<p>Garbiketaz arduratzen diren pertsoneri maskara eta eskularruak nahitaez erabiltzeko eskatu. Produktu kimikoak toxikoak izan daitezke.</p>
	<p>Paperontziak eta hondakin-edukiontzia kutsaduretatik babesteko bermearekin kendu.</p>
	<p>Esparruak garbitu eta desinfektatzea Vianako Printzea erakundearen jarraibideen arabera</p>
	<p>Zalantzarik izanez gero, kontsultatu <a href="mailto:conservación@navarra.es">conservación@navarra.es</a> <a href="mailto:patrimoniohistorico@navarra.es">patrimoniohistorico@navarra.es</a></p>